


## Edorta Kortadi: Jantzia eta alaia

---

Rondilla kalean jaioa, umetandik joan zen familia Donostiara bizitzera. Aita Jose musika bandako klarinetea izan zen. Oso pertsona alaia da, jostailu bat da. Karakterra badu, batzuetan baditu bere gauzak. Apaiza bezala egiten du bere betebeharra Añorga Txikin. Kultura mailan, batez ere artean, soka muturrean dago, oso kezkatutako pertsona da. Kritiko bezala medio askotan kolaboratzen du. Irakasle bezala pertsona jantzia da. Doktoradutza ari da prestatzen eta laster aterako du oztoporik gabe. Nik ekarri nuen berriro Tolosara parrokoari San Juan eguneko sermoilaria bera izatea proposatuz. *Txinpartara* eta Parrokiko etxera ere etorri da geroztik eta orain abesbatzen pregoia eman berri du.



Edorta Kortadi : Jantzia eta alaia (Nortasun ertzak) /  
Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Galtzaundi*.  
*Tolosaldeko Herri Aldizkaria*. - Tolosa : Galtzaundi  
Euskara Taldea. - 37. zenb. (1994 abend.), 23 orr.